Hondarribiko Udala

Esp. Kod.: 2022K1150010
Erref: K.G.

**HONDARRIBIKO UDALAK "HONDARRIBIA" HERRI ALDIZKARIAREN DISEINU, KOORDINAZIO, ERREDAKZIO, ITZULPEN, MAKETAZIO, INPRIMAKETA ETA BANAKETARAKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI BITARTEKO LEHIAKETA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.**

**PLIEGO DE CONDICIONES TECNICAS QUE HAN DE REGIR EL CONCURSO PARA LA LICITACIÓN, MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO, PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE DISEÑO, COORDINACIÓN, REDACCIÓN, TRADUCCIÓN, MAQUETACIÓN, IMPRESIÓN, Y DISTRIBUCIÓN DE LA REVISTA MUNICIPAL "HONDARRIBIA", POR EL AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA**

## 1. KONTRATUAREN GAIA

Kontratuaren xedea euskarazko "Hondarribia" herri aldizkariaren diseinu, koordinazio, erredakzio, itzulpen, maketazio , inprimaketa eta banaketa lanak Hondarribiko Udalerako burutzea da.

"Hondarribia" herri aldizkariaren edukia gaur egungo Hondarribiari, bere iraganari eta etorkizunari buruzkoa izango da kulturaren, ekonomiaren, eta gizartearen ikuspuntutik, horretarako elkarrizketak eta erreportajeak eskainiko direlarik, halaber lehiatzaileek egokitzat jotzen dituzten baliabideak udal interesekoak diren eremuko euskarazko aldizkaria era osoan eta dinamikoan diseinatu eta argitaratzeko, non hiritarren iritziak azaltzeko aukera izango duten.

**Gidalerro orokorrak:**

- Hiritarrei udal erabaki eta planen berri eman.
- Hondarribiko gaur egungo gai interesgarrien berri eman hiritarrei.
- Hiritarren artean euskara eta euskal kulturari buruzko informazioa hedatu.
- Hondarribiko historia, kultura, arte, tradizio eta abarren berri ematea.

Gidalerro zehatzak:

- Udala lantzen ari den egitasmo eta planen berri eman.

## 1. OBJETO DEL CONTRATO.

Es objeto del contrato la realización de los trabajos de diseño, coordinación, redacción, traducción, maquetación, impresión, y distribución de la revista municipal en euskera "Hondarribia", para el Ayuntamiento de Hondarribia.

La revista municipal "Hondarribia" debe reflejar la realidad socio-cultural, y económica del municipio, tanto en su vertiente actual, como en el reflejo de su historia y su futuro, ayudándose para ello con entrevistas y reportajes, así como con los medios que los licitadores consideren oportunos para diseñar y editar una revista en euskera que abarque todos los ámbitos de interés municipal de forma completa y dinámica, en la que tengan cabida las opiniones de los ciudadanos.

**Directrices generales:**

- Informar a la ciudadanía de las resoluciones y de los planes municipales.
- Informar de temas de actualidad interesantes para los ciudadanos.
- Difundir entre los habitantes de información referente al euskera y a la cultura vasca.
- Difundir la historia, cultura, arte, tradiciones etc, de Hondarribia.

Directrices específicas:

- Dar a conocer los proyectos y planes en los que trabaja el Ayuntamiento.

Hondarribiko Udala

- Hilero Hondarribiko errealitate sozial, ekonomiko, eta kirolei buruzkoa ematea.
- Hizkuntza eta irudiak era ez sexistan erabili beharko dira, hizkuntza eta irudiak era sexistan erabiltzea ekidingo da, erabilera hura gizon eta emakumeen arteko berdintasuna arautzen duten gidalerro guztietara egokitu beharko delarik.

- Era berean adingabekoei buruzko irudien tratamendua kontuan hartuko da, eta adingabekoaren orokorrean, ematen zaion tratamendua ezarri beharreko araudiari egokitu beharko zaiolarik.
- Kontratuaren arduradunak esleipendunak ekarritako argazkiak profesionalak eta kalitate onekoak izatea eskatuko du, eta bereziki aldizkariaren azalean txertatu beharreko argazki nagusia. Esleipendunak irudi guztien eskuragarritasuna bermatu beharko du Udalak libreki argitaratu eta hedatzeko, eskubide hori bateragarri eginez egileen jabetza intelektualarekin. Esleipendunak argazkietan atera daitezkeen pertsonen baimena lortzearen arduradun egingo da, libreki hedatu ahal izateko.

- Dar a conocer mensualmente la realidad social, cultural económica y deportiva de Hondarribia.
- Se deberá hacer uso de lenguaje e imágenes no sexistas: se evitará el uso de lenguaje e imágnes sexistas, adecuándose el mismo a las pautas marcadas por toda normativa que regula la igualdad de hombres y mujeres, la violencia de género y los organismos encargados de controlar la violencia de género.
- Así mismo se tendrá en cuenta el tratamiento de las imágenes de menores y la imagen del menor en general, adecuándose este tratamiento a la normativa que le sea de aplicación.

- El responsable del contrato exigirá que todo el material fotográfico aportado por el adjudicatario sea profesional y de buena calidad, y especialmente la foto principal a insertar en la portada de cada níumero de la revista. El adjudicatario deberá garantizar la disponibilidad de todas las imágenes para su libre publicación y difusión por parte del Ayuntamiento, haciendo compatible ese derecho con el de la propiedad intelectual de los autores. El adjudicatario se hará responsable de contar con el consentimiento de las personas que pueden aparecer en las fotografías realizadas, para su libre difusión.

## 2. ALDIZKARIAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

- Urtean gutxienez 12 ale argitaratu beharko dira, hilabetekaria izango da, eta formatu aldetik honelakoa izan beharko du:

- Zenbaki bakoitzeko gutxienez 2.000 ale argitaratu beharko dira, gutxienez 32 orrialde izango ditu, jaietako aleak izan ezik, horrek 40 orrialde izango baititu.
- Aldizkariaren neurriek gutxienez 21x29,7koak izan beharko dute.
- Aldizkariko azalean koloreek 4+4 izan beharko dute, eta ale bakoitzean gutxienez 24 orrialdek 4 + 4 koloretan izan beharko dute.

## 2. CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS DE LA REVISTA

- Se deberán editar un total de al menos 12 números anuales, revistiendo la revista una periodicidad mensual, debiendo respetar el siguiente contenido mínimo en cuanto a su formato:
- Se deberán editar al menos 2.000 ejemplares por cada número, con un mínimo de 32 páginas, excepto el número especial de fiestas (agosto), que tendrá 40 páginas.
- Las medidas del soporte deberán ser al menos de 21x29,7.
- Los colores en portada de la revista serán de 4 + 4, siendo que en cada número deberán existir cuando menos 24 páginas a color 4+4.

Hondarribiko Udala

- Azaleko papera 150 gramokoa izango da, couché paper distiratsuan.
- Barneko papera orriko 115 gramokoa izango da, couché paper distiratsuan.

**3. BURUTU BEHARREKO LANAK**

Aldizkariaren diseinu, koordinazio, erredakzio, itzulpen, maketazio, inprimaketa eta banaketa lanen kostu osoa enpresa esleipendunaren kontura joango dira. Bereziki, atal horiei dagokienez, ondoko gutxieneko baldintzak errespetatu beharko dira.

**DISEINU ETA EDUKIAK**

- Aldizkari osoa euskaraz argitaratuko da, euskararen erabilera prentsa idatzian sustatzeko asmoz.
- Aldizkari bakoitzean agertuko diren gaiak, argazkiak eta artikuluak, argitaratu aurretik ontzat eman beharko ditu argitalpen bakoitzerako Udalak izendatuko duen arduradunak, beraz, zenbaki bakoitzaren zirriborroak Kontratuaren Udal Arduradun horren oniritzia beharko du.
- Hartarako esleipendunak aldez aurretik: a) Argitaratu beharreko eduki eta gidalerroen eskema eta b) zenbaki bakoizteko zirriborro bat **emango dio Kontratuaren Arduradunari hileko 20. egunerako** Astean gutxienez argitaratu baino 7 egun lehenago, Kontratuaren Arduradunak edukia gainbegiratu eta oniritzia eman diezaion.

- Zenbaki bakoitzeko Hondarribiko Udal euskara Zerbitzuan euskarri digital bana aurkeztuko da, udal web orrian argitaratzeko

- Esleipendunak ezin izango du aldizkarian argitaratutako edukirik (artikuluak, erreportajeak, elkarrizketak, argazkiak, etab.) beste edozein komunikabide edo argitalpenetan erabili, osorik nahiz zatikaturik, zuzenean nahiz laburturik.

- El gramaje del papel de portada deberá ser de 150 gr. de papel couché brillo.
- El gramaje del papel interior deberá ser de 115 gr. de papel couché brillo.

**3. SERVICIOS A REALIZAR**

Correrá a cargo de la empresa adjudicataria la totalidad de costes de diseño, coordinación, redacción, traducción, maquetación, impresión, y distribución de la revista. En especial, en relación con dichos apartados se deberán respetar las siguientes condiciones con carácter de mínima:

**DISEÑO Y CONTENIDOS**

- La revista se editará en su integridad en euskera con el objetivo de impulsar el uso del euskera en la prensa escrita.
- En todo caso los temas, fotos y artículos que sean incluidos en cada número, serán acordados con anterioridad a su publicación, con el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Hondarribia, de manera que el borrador de cada número necesitará el visto bueno previo del Responsable del Contrato.
- A los efectos, el adjudicatario entregará previamente :a) un esquema que marque las pautas y contenidos de la revista a editar; y b) un borrador de cada número de la revista **para el día 20 de cada mes,** al Responsable del Contrato con una antelación mínima de 7 días anterior a la fecha de su publicación, para que el Responsable del Contrato pueda revisar su contenido y otorgar el correspondiente visto bueno.
- De cada número se deberá entregar asimismo el correspondiente soporte digital en el Servicio de Euskera del Ayuntamiento, para su publicación en la página web municipal.
- El adjudicatario no podrá hacer uso o divulgación de ningúno de los contenidos publicados en la revista (artículos, reportajes, entrevistas, fotos, etc.) en ningún otro medio o publicación, bien sea en forma total o parcial, o en forma directa o extractada.

Hondarribiko Udala

- Herri Aldizkariak gutxienez ondoko gai arloak landu beharko ditu, betiere lehiatzaileek beren eskaintzetan hobetu ditzaketelarik, eta aldizkariaren edukia ataletan egituratze hobea azaltzen dutenetan behar bezala arrazoituriko proposamenak aurkeztuz gero ordezka ditzaketelarik.

- Herrian Barrena Jarduera: Auzoei, herriari eta eskualdeari buruzko berriak

- Elkarrizketa. Zenbait hondarribiarri sakonean egindako elkarrizketak.
- Erreportajea: kultura, euskara, historia, industria, arrantza, baserria, kirola, eta abar oinarri hartuta horien arlo bati buruzko erreportajea.
- Alderdien txokoa: Iritziak, iradokizunak: udaleko ordezkari politikoen iritzi eta iradokizunak edozein gairi buruz.
- Aisia ( Liburuak, musika, zinema): Euskarazko liburu, pelikula eta diskoei buruzko informazioa, dagokion kritikarekin. Egingo diren kultur ekitaldien berri eman.
- Denbora-pasak: hitz gezidunak, gurutzegramak, ezkutuko hitzak, etab.
- Ganbarako kutxa: Hondarribiko garai bateko argazkiak dagozkion iruzkina dutela.
- Argitaratu aurreko hilabeteko estatistika datuak: Erroldari buruzko estatistika datuak:
  - Alta eta baja kopurua eta biztanle kopurua guztira.
  - Liburutegiari buruzko estatistika datuak: Bazkide berrien kopurua sexu eta adinaren arabera sailkatuak. Euskara eta erdarazko liburu berrien kopurua. Utzitako liburu kopurua. Zein liburu irakurri dituzten gehien heldu eta umeek.
  - Bentari buruzkoak: Hondarribian egindako benta espezie eta tonaka.
  - Enpleguari buruzkoak: Bidasoa Bizirik

**BANAKETA**

- Esleipendunak **hileko 27. egunerako** posta-bulegoan entregatuko ditu zenbait erakundetako

- Con carácter de mínima, la revista municipal deberá contar con el tratamiento de las siguientes secciones temáticas, mejorables y ampliables por los licitadores en sus ofertas y, en su caso, sustituibles, por propuestas suficientemente motivadas que defiendan una mejora sustancial de la estructuración en secciones del contenido de la revista:

- Actualidad Herrian Barrena: noticias varias sobre la actualidad en los barrios, el municipio y la comarca.
- Entrevista: entrevista en profundidad a personajes de Hondarribia.
- Reportaje: Reportaje sobre algún aspecto de la cultura, euskera, historia, industria, pesca, caserío, deportes, etc.

- Alderdien txokoa: Opinión, sugerencias: opinión, sugerencias de los representantes políticos municipales sobre cualquier tema.
- Ocio (Libros, música, cine): información acerca de libros, películas y discos en euskera, con su correspondiente crítica. Dar a conocer los actos culturales más destacados.
- Pasatiempos: autodefinidos, crucigramas, palabras escondidas etc.
- Ganbarako kutxa: Fotos antiguas de Hondarribia con su comentario correspondiente
- Datos estadísticos habidos el mes anterior a la publicación, sobre:
  - Padrón: Nº de altas, bajas y nº total de habitantes.
  - Biblioteca: Nº de nuevos socios por sexo y edad. Nª de nuevos libros en euskera y castellano. Nº total de libros prestados. Los más leídos por los adultos y los niños.

  - Venta: Venta realizada en Hondarribia por especies y toneladas.
  - Empleo: Bidaso bizirik

**DISTRIBUCIÓN**

- El adjudicatario entregará **para el día 27 de cada mes** en la oficina de correos los ejemplares correspondientes a los suscriptores de ciertos

Hondarribiko Udala

harpidedunei dagozkien aleak, Euskara Zerbitzuak emango dion zerrendaren arabera. Bidalketa gastuak esleipendunaren kontura izango dira, (50 helbide gehienez) eta hilero bidalketaren berri emango dio kontratuaren arduradunari.

- Era berean **hileko 27. egunerako** Hondarribiko Udaleko BAZen (Biztanleen Arreta Zerbitzua) 200 ale utziko ditu udal bulegoetarako, artxiborako, udalkideei eta udal langileei banatzeko etab.

- Esleipendunak zenbaki bakoitza **hileko 27. egunerako** Hondarribiko Udal euskara Zerbitzuan euskarri digitalean (pdf, eta abar) aurkeztuko du, Udal web orrian argitaratzeko.

- Esleipendunak **hileko 27. egunerako** harpidedunei banatzekoak ez direnak eta Hondarribiko Euskara zerbitzurako gordeak ez direnak Jende gehiena biltzen duen liburu-denda, paper-denda, taberna, jatetxe, denda, kiroldegi, anbulatorio eta abarretan banatuko ditu, eta zerrenda hori udal euskara arduradunarekin eguneratuko du, gehienez 100 puntutan banatu beharko delarik. Hilero eta banaketa bakoitzaren ondoren, kontratuaren arduradunari txosten bat bidaliko zaio, bertan banaketan izandako gorabeheren berri emango da eta izandako arazoen aurrean hurrengo banaketarako konponbideak proposatuko dira.

**PUBLIZITATEA**

- Aldizkarian agertzen den publizitateak erabat euskaraz joan behako du, eta merkataritza izaera bakarrik izango du. Publizitatea hori kontratatzetik bildutakoa esleipendunen sarrerak izango dira, baina esleipendunak publizitate prezio horien eta kontzeptu horretatik bildutako urteko diruaren berri kontratuaren arduradunari jakinaraziko dio.
- Publizitatea aldizkariko orri-oinean sartuko da. Orrialde bakoitzean gehienez bi publizitate modulu ezarriko dira, kontuan izanik orrialde

organismos, cuya lista le será entregada por el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Hondarribia. Los gastos de envío serán a cuenta del adjudicatario, (50 direcciones máximo) y dará cuenta mensualmente de dicho envío al responsable del contrato.

- Asimismo entregará **para el día 27 de cada mes** en el SAC (Servicio de Atención al ciudadano) del Ayuntamiento de Hondarribia 200 ejemplares para atender a las necesidades del mismo, destinados a archivo, corporativos y empleados municipales, dependencias municipales etc.
- El adjudicatario entregará **para el día 27 de cada mes** cada número de la revista asimismo en formato digital (pdf, etc.) en el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Hondarribia, para su publicación en la página web municipal.

- Los ejemplares que no correspondan a suscriptores y a la reserva a favor del Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Hondarribia, deberán ser distribuidos **para el día 27 de cada mes** por el adjudicatario en las librerías, papelerías, bares, restaurantes, tiendas, polideportivo, ambulatorio y lugares frecuentados por el público, cuya lista se actualizara de acuerdo con el responsable municipal de euskera, con un máximo de 100 puntos de distribución. Mensualemente y al final de cada reparto se enviará un informe al responsable del contrato, indicando las incidencias habidas en el reparto, y ante los problemas detectados soluciones propuestas para el próximo reparto.

**PUBLICIDAD**

- La publicidad insertada en la revista deberá ser íntegramente en euskera y únicamente podrá tener carácter comercial. Lo recaudado por la contratación de dicha publicidad serán ingresos propios de los adjudicatarios, si bien los precios de publicidad y la recaudación anual por este concepto deberán ser notificados por el adjudicatario al responsable del contrato.
- La publicidad irá incluida a pie de página de la revista. En cada página se insertarán como maximo 2 módulos de publicidad, teniendo en

Hondarribiko Udala

bakoitza 8 modulu direla. Modulu bakoitzaren prezioa Hondarribiko Udalean indarrean dauden ordenantza fiskalen araberakoa izango da eta hiru hilero kobratuko da.

- Esleipenduna arduratuko da iragarkiak lortu, diseinatu eta kudeatzeaz, eta iragarleei kobratuko die zuzenean, ezin izango diolarik inolaz ere Hondarribiko Udalari inolako ardurarik iragarki horien kobraketa eza dela eta.

- Hondarribia aldizkarian publizitateari buruzko iragarkiek ezin izango dute aldizkariaren espazio osoaren %20 gainditu, azalean ezin izango delarik iragarkirik jarri. Iragarkietarako espazioa enpresa esleipendunak kudeatuko ditu, aldizkariaren estilo orokorra errespetatuz, eta bat etorriz aldizkariaren diseinu irizpideekin.

- Txertatutako publizitatea komertziala izan daiteke bakarrik..
- Txertatzen den publizitateak ez du inolaz ere ekarriko alderdi politiko jakin baten ideologia edo ekitaldien hedapenik.

cuenta que una página son 8 módulos. El precio se cobrará por cada módulo trimestral según las ordenanazas fiscales en vigor del Ayuntamiento de Hondarribia.

- El adjudicatario se encargará de diseñar, captar y gestionar los anuncios y cobrará directamente a los anunciantes el importe correspondiente a la publicidad, no pudiendo exigir al ayuntamiento de Hondarribia ninguna responsabilidad por impago de los mismos.
- En la revista Hondarribia los anuncios publicitarios no podrán superar el 20% del espacio total de la revista, así mismo se excluye de publicidad la portada. Los espacios publicitarios serán gestionados por la empresa ajudicataria, deberán respetar el estilo general de la revista, y estarán en armonia con los criterios de diseño de la revista.
- La publicidad insertada únicamente podrá tener carácter comercial.
- La publicidad que se inserte en ningún caso implicarán divulgación de actos o ideología de un partido político determinado.

## 4. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

### 1. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK ETA HIZKUNTZAREN ERABILERA

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. Artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko legean eta hori garatzen duten arauetan araututa, besteak beste Hondarribiko Udalaren hizkuntza politikarako Euskararen Ordenantzan eta Hondarribiko Udalaren Euskararen Erabilera Planaren 2013-2017 bidez onartutako irizpideetan.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan administrazioetako normalizazio planek jaso beharko dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu eta horien artean ondorengoa agertzen da: "18 d)

## 4. CRITERIOS LINGÜÍSTICOS

### 1. CRITERIOS LINGÜÍSTICOS Y TRATAMIENTO DE LA LENGUA

Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6º y regulado por la ley 10/1982 de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla, entre las que están la Ordenanza del Euskara para la Política lingüística y del Plan del Uso del euskera 2013-2017 del Ayuntamiento de Hondarribia.

El Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en su artículo 18 establece las determinaciones que los planes de normalización del uso del euskera deben recoger, entre ellas la siguiente:

Hondarribiko Udala

Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen."

1. **Zerbitzuan erabiliko den hizkuntzari buruz**

Hau da, esleipendunaren eta Hondarribiko Udalaren arteko harreman hizkuntza euskara izango da lehentasunez, bai idatziz baita ahoz ere.
Zerbitzuaren prestazioak herritarrekiko harreman zuzenak dakartzanean, Hondarribiko Udalak finkatutako hizkuntza irizpideetan oinarritutako honako baldintzok beteko dira:
a. Erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek bi hizkuntza ofizialetan hartuak izateko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du prestazioa kontratuaren esleipendunak. Eta jakinaraziko zaio erabiltzaileei normalean euskaraz zuzenduko zaizkiela ahozko harremanetan (telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan …) eta gaztelaniaz egingo dutela baldin eta erabiltzaileek aukera hori egiten badute.
b. Erabiltzaileentzako inprimakiak, tiketak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dira, bi hizkuntza ofizialetariko edozeinetako batean betetzeko moduan, erabiltzaileak aldez aurretik euskara hutsez egiteko modu formalizatuan adierazia ez badu.

c. Bestalde enpresa esleipendunari idatzizko dokumentazioaren gaztelaniazko bertsioa ere eskatu ahal izango dio Udalak, euskarazkoaz gain, (azterlan, txosten, proiektu eta bestelako lanak, softwareetako testuzko eta soinuzko interfazeak barne). Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratuak, fakturak, txostenak, bilerak, kontsultak …) administrazioaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz.

d. Hondarribiko Udalaren Euskararen Ordenantzan jasota dagoen bezala, aitortutako eskubideak benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen beharrezko diren neurriak hartuko ditu esleipendunak. Hortaz, euskara zerbitzuko hizkuntza ez ezik, laneko

"18 d) Medidas contempladas en materia de contratación, en particular, las tendentes a garantizar que aquellos servicios públicos que conlleven una relación directa con la persona usuaria y se ejecuten por terceros sean prestados a los ciudadanos en condiciones lingüísticas similares a las que sean exigibles para la administración correspondiente".

1) **Lengua a utilizar en el servicio:**

Es decir, la lengua relacional entre el adjudicatario del contrato y el Ayuntamiento de Hondarribia será prioritariamente el euskera, tanto escrito como oral.
Cuando la prestación del servicio traiga consigo la comunicación directa con los usuarios se cumplirán las siguientes condiciones basadas en criterios lingüísticos establecidos por el Ayuntamiento:
a. El adjudicatario del contrato deberá prestar servicio respetando el derecho de los usuarios y los ciudadanos a ser atendidos en las dos lenguas oficiales. Y se le hará saber que en general se dirigirán a los usuarios en euskera en su relación oral (telefónica, contestadores, presencial …), y que en caso de que los usuarios así lo requieran, se dirigirán a ellos en castellano.

b. Los impresos, notas, tickets y notificaciones dirigidas a los usuarios se harán en euskera o en euskera y castellano, de forma que puedan ser cumplimentados en cualquiera de las dos lenguas, excepto en el caso de que los usuarios previamente soliciten que se dirijan a ellos únicamente en euskera.

c. Por otra parte el Ayuntamiento podrá solicitará a la empresa adjudicataria la versión en castellano además de la de euskera de la documentación escrita (estudios, informes, proyectos u otros trabajos, incluidos los interfaces textuales y sonoros de los diferentes softwares). Las relaciones escritas y verbales con la administración (contratos, facturas, informes, reuniones, consultas…) se ajustarán a la lengua de trabajo de la administración, es decir al euskera.

d. Tal y como está recogido en la Ordenanza Municipal del Euskera, el adjudicatario tomará las medidas necesarias a fin de que los derechos reconocidos sean reales y efectivos. Por lo tanto, el euskera será no sólo lengua para dar servicio, sino lengua de trabajo. De

Hondarribiko Udala

hizkuntza ere izango da. Era berean, horretarako Euskara Zerbitzuaren aholkularitzaz ere baliatu ahal izango da kontratuaren esleipenduna.

**2. <u>Euskara gaitasunari buruz</u>**

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez.

Bai bukaerako produktua, bai aldizkaria egiteko prozesua euskaraz egitea bermatzeko asmoz enpresa esleipendunak beharrezkoa den langileria eduki beharko du euskaraz burutu ahal izateko bai enpresaren ordezkaritza eta arreta lanak bai interesatuen edo iragarleen aurrean, eta era berean aldizkariaren maketazio eta zuzenketaren ikuskapenari begira.

Kontratua burutzen den bitartean baldintza berezi hau ez betetzeak kontratua bertan behera uztea erakarriko du eta esleipendunak eragindako kalte-ordain guztiak ordaintzea.

Esleipendunak kontratatuko dituen giza baliabideek honako hizkuntza eskakizuna bete beharko dute :

- Aldizkariko erredaktore kazetari bat, kazetaritzan lizentziatua, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo baliokidea duena, hau da EGA agiria, 3.HE eta abar…. Euskara gaitasuna titulu bitartez egiaztatu beharko da (Administrazioak araututako tituluak nahiz HABEk, Hizkuntza Eskola Ofizialak edo Hezkuntzak ematen dituenak).

- Maketazioaz arduratuko den diseinugile grafiko bat, titulazio hau duena edo baliokidea: Argitalpen diseinu eta ekoizpenean Goi mailako Teknikaria. Euskararen ahozko ezagutza egiaztatu beharko du: Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B1 maila edo baliokidea duena, hau da 1. H.E. eta abar. Egiaztatzeko euskarazko titulurik izan

igual forma, el adjudicatario del contrato podrá disponer para ello del asesoramiento del Servicio de Euskera.

**2) <u>Capacitación lingüística</u>**

En sus relaciones con la administración o terceros, las personas empleadas por la empresa contratada deben garantizar, en lo que a sus competencias lingüísticas se refiere, unas condiciones similares a las que de hecho se exijan a la administración contratante.

Con el fin de garantizar que tanto el producto final como el proceso de elaboración de la revista pueda ser realizado en euskera la empresa adjudicataria deberá disponer del personal necesario para que se pueda desempeñar en euskera labores de atención y representación tanto de la empresa como ante cualquier interesado, anunciantes, así como el trabajo de maquetación y supervisión de la corrección de la misma.

El incumplimiento de esta condición especial de ejecución durante la ejecución del contrato determinará la resolución inmediata del mismo con indemnización, por parte del adjudicatario, del total de los daños y perjuicios ocasionados.

Los trabajadores que contrate la empresa adjudicataria deberán cumplir los siguientes requisitos lingüísticos

- Un periodista redactor de la revista, que deberá ser licenciado en periodismo y deberá contar con el título de el perfil lingúístico C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas o equivalente: EGA, PL3, etc . La capacitación lingüística se deberá acreditar documentalmente (mediante títulos reglados por la administración, o títulos expedidos por HABE, la Escuela Oficial de Idiomas o Departamento de Educación

- Un diseñador gráfico encargado de la maquetación, que deberá disponer de la siguiente titulación o equivalente: Técnico superior en diseño y producción editorial. Deberá acreditar conocimiento oral de euskera: perfil lingüístico B1 del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas o equivalente: PL1, etc... En caso de carecer de título para demostrar el

Hondarribiko Udala

ezean ahozko azterketa egingo zaio Udal Euskara Zerbitzuaren bidez.

- Publizitateaz arduratzen denak euskararen ahozko ezagutza egiaztatu beharko du: Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B1 maila edo baliokidea duena, hau da 1. H.E. eta abar... Egiaztatzeko euskarazko titulurik izan ezean ahozko azterketa egingo zaio Udal Euskara Zerbitzuaren bidez.

conocimiento de euskera se le hará un examen oral en el Servicio de euskera del Ayuntamiento.

- El encargado de gestionar la publicidad deberá acreditar conocimiento oral de euskera: perfil lingüístico B1 del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas o equivalente: PL1, etc.. . En caso de carecer de título para demostrar el conocimiento oral se le hará un examen en el Servicio de euskera del Ayuntamiento.

*Behin kontratazioa eginda enpresa esleipendunak euskara gaitasuna egiaztaturiko langileren bat aldatuz gero, aldatutako langilearen lekua beteko duenak hemen xedatutako hizkuntza betebeharrak bete beharko ditu.

*Una vez realizada la contratación en el caso de que la persona trabajadora con el nivel de euskera acreditado sea sustituida, el trabajador que le sustituya deberá cumplir los requisitos lingüísticos recogidos en este texto.

**3) Betebeharren jarraipenari eta ez betetzeari buruz:**

Kontratuaren arduradunek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte kontratudunek atal honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko eta erabilitako hizkuntza ofizialen zuzentasuna eta egokitasuna zaintzeko.

Hizkuntza betebehar horiek behin eta berriz urratzeak kontratua bertan behera uztea ekar lezake, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bateratuaren 223.g) artikuluari jarraituz.

**3) Seguimiento de los requisitos e incumplimientos:**

Los responsables del contrato tomarán las medidas adecuadas para cerciorarse de que los contratistas cumplen lo establecido en este apartado y para cuidar que las lenguas oficiales se utilicen correcta y adecuadamente.

El incumplimiento continuado de los requisitos lingüísticos podrá dar lugar a la resolución del contrato, de conformidad con el artículo 223.g) del texto refundido del a Ley de contratos del Sector Público.

**Elektronikoki sinatutako agiria**
**Euskara teknikaria**

KARMELO GOICOECHEA ECHEVERRIA - 15242449G

Digitalki sinatuta norengandik: KARMELO GOICOECHEA ECHEVERRIA - 15242449G
Data: 2022.06.14 10:59:58 +02'00'